

SEMIOTIKA ETA MASA-KOMUNIKAZIOA: PANORAMA EUROPARRA

Jose Inazio Basterretxea Polo eta Marian Gonzalez
Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 1997

Jose Inazio Basterretxea eta Marian Gonzalez irakasleek prestatu duten *Semiotika eta masa-komunikazioa* izeneko liburua, egiaz, oso hutsune nabarmena betetzera dator euskarazko unibertsitatearen aldeko lanean, ene ustez. Testuliburu honek oso era argian, zorrotzean, eta gaurkotuan jorratzen du Semiotikaren alorra, orain arte euskaratu gabea geneukana. Liburuaren egiturak garbi adierazten du, hori idaztean egileek oso bide didaktikoa erabili dutela, eta unibertsitateko ikasleak ere gogoan izan dituztela. Ikasketa plangintza berrietarako oso aproposa, beraz.

UPV-EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko euskal adarreko bi irakasle hauek lan handia egin dute, gai nahiko lehor hau era ulergarrian eta, aldi berean, jasoan emateko. Honetarako Italiako Boloniako unibertsitateko Roberto Pellerev irakaslearen laguntza ere izan dute. Azken honek idatzitako bi artikulua ere euskaratu eta sartu baitituzte.

Liburuaren lehen atalean hurbilpen orokorra dago eta irakasgaiaren kontzeptu nagusiak hemeretzi orrialdetan jorratzen dituzte: komunikazioa eta semiologia; masa-komunikazioaren semiotika; eta semiotika edo semiologia adigaien arteko eztabaida eta erabilera.

Irakurlea, oinarritzko kontzeptu-tresna horiek emanda, prest dago biga-

rren atalari ekiteko: teoria semiotikoaren oinarriak. Hemen aztertzen den lehen teorikoa Ferdinand Saussure da, *semiologiaren* zientzia aurreikusi zuen hizkuntzalaria, eta honen teorien alderdi garrantzitsuenak era grafiko eta laburrean ematen dituzte Basterretxea eta Gonzalez irakasleek. Ondoren, Charles S. Peirce, *semiotika* deituraren proposatzailea, eta Charles Morris teorikoek egindako ekarpenak azaltzen dituzte. Nire ustez, Peirce-ren semiotikaren eta alor horren barruko *pragmatikaren* inguruan zerbait gehiago ere luza zitezkeen, baina argi azaldu dute izenburuan panorama europarra dutela erreferentzia. Roland Barthes frantses semiologoaren lanak eta iradokizunak, eta sortaldeko europar tradizio-ko Roman Jakobsonen funtzionalismoa ere jasota daude. Algirdas Julien Greimas-ek landutako testu-analisi semiotikoa ere deskribatzen dute, erreferentzia modura izateko.

Teorikoen/teorien atal hau amaitzeko Roberto Pellerev boloniar irakasleak Umberto Eco-ren teoria semiotikoa aztertzen du, 1962ko *Opera aperta* lanetik 1990eko *I limiti dell'interpretazione* izenekoraino. Semiotikak betidanik izan duen kritika bat –testu bati ikerleak (ia) edozein interpretazio eta edozein esanahi bila eta aurki lie-zaiokeela, nahi izanez gero– hartzen du hizpide Pellerev-ek, eta Eco-k bereizitako hiru intentzio motak gogorazten ditu: *intentio auctoris*, autoreak testuari aitortzen dion esanahia;

intentio operis, «testutik sortzen den significatu linguistikoa, sarritan autorearen intentziotik apartatzen dena», eta *intentio lectoris*, irakurleak garatutako esanahia. Baina zein muga ezarri beharko litzaioke interpretazioari? Oso labur esanda, Umberto Eco-ren ustez muga testualak eta muga sozialak. Lehenak pragmatikaren bitartez definitzen dira; muga sozialak, berriz, gizarte jakin batean komun den interpretazio-eremuaren bitartez. Jokabide honek ez du arazorik sortuko testu askoren analisi orokorretan, gizarte batean *komun* den edo izan daitekeen interpretazio-eremua adosgarria izan baitaiteke; bai beste testu batzuetan, ordea. Baina semiotikaren inguruan egiten diren eztabaidak gai hauen inguruan izaten dira eta horrela jarraituko du seguruenik, testuen eta zeinuen esanahi eta interpretazioak neurri handi batean subjektiboak baitira.

Basterretxearen eta Gonzalezen liburuaren meriturik handiena, hala ere, nire ustez, ez dago teoriari emandako lehen eta bigarren ataletan, azken bietan baizik: semiotika eta hedabideetako komunikazioa, eta publizitatearen semiotika.

Prentsa idatzian erabiltzen den “kazeta-diskurtsoaren” azterketa

praktikoa adibideak erabiliz egiten dute: gainegitura, makroegitura, mikroegitura, titulargintza, eta argazkien funtzioak, besteak beste. Gero, telebistaren azterketa semiotikoari ekiten diote, telebistarena “diskurtso erraldoia” dela azpimarratuz. Telebistako diskurtsoaren ezaugarri nagusienak –zatiketa, azaleko isotopia, jarraikortasun itxurazko aniztasuna– adierazi eta “telebista espektakulua” tesiarekin ixten dute atal hau. Amaitzeko, ahozkotasanaren azterketari egiten diote toki eta Roberto Pellerev-en “kazeta elkarrizketa berezitua” izeneko lana txertatu dute.

Publizitatearen atala, azkena, oso esanguratsua da, ez unibertsitateko ikasleentzat bakarrik, baita edozeinentzat ere. Hor jorratzen eta arakutzen diren adibideak oso argiak dira eta, ene ustez, gizarte osoan zabaldu beharko genituzke jakintza horiek. Kontsumo-balioen sistema, publizitatearen filosofia eta funtzioak dira, besteak beste, landutako alderdiak.

Liburu oso interesgarri baten aurrean gaude beraz eta bi irakasleek egindako lanak erabilera handia izango du unibertsitatean.

Iñaki Zabaleta Urkiola